

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRURAKO UDALA

*Irurako udalerriko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan Covid-19ari aurre egiteko beharrezko inbertsioak egiteko, ekipamenduak jartzeko eta inbertsio horiek bideratzeko ikerketak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia.*

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 2020ko ekainaren 10ean, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan ekonomia suspertzeko programaren oinarri arautzaileak eta 2020rako deialdia argitaratu dira. Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du, Covid-19 ri aurre egiteko.

Onuradunak Udalak izango dira, baina helburua merkataritza eta ostalaritza sektoreetako inbertsioak finantzatzea da, Covid-19 aurre egiteko jarduera ekonomikoa prestatzeko.

Helburu horrekin, udal honek 13.043 €-ko dirulaguntza jaso du.

Orain, Irurako merkataritza eta ostalaritza sektoreek egiten dituzten inbertsioak finantzatu behar dira dirulaguntza honekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua (25) eta 34) paragrafoetan udalei adierazitako eskumenak baliatuz.

Halaber, aipatutako legeak Alkatetza honi ematen dizkion eskumenak baliatuz, honako hau

ERABAKI DU

1.º Tokiko ekonomia suspertzeko dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak onartzea txikikazko merkataritzaren eta ostalaritzako establezimenduen sektoreetan Covid-19 aurre egiteko.

Deialdi hori ebazpen honen eranskin gisa jaso da.

Deialdi hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Deialdia eta laguntza eskatzeko beharrezkoak diren gainontzeko dokumentuak Irurako Udalaren web orrian ([www.irura.eus](http://www.irura.eus)) daude eskuragarri, dirulaguntzak atalean.

2.º 13.043 €-ko gastua baimentzea 2020ko udal-aurrekontuan, Irurako Udaleko aurrekontu honen baitan:

1.1000.480.431.00.00.2020

Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, deialdia argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

Irura, 2020ko irailaren 14a.—Gorka Murua Macuso, alkatea. (4630)

AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Convocatoria para la concesión de subvenciones destinadas a inversiones, equipamientos y estudios necesarios para llevar a cabo esas inversiones, dirigidas a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid-19 en los sectores del comercio y hostelería del municipio de Irura.*

En el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 10 de junio de 2020, se han publicado las Bases reguladoras y la convocatoria de 2020 del Programa para la reactivación económica local en los sectores del comercio y hostelería para hacer frente a la Covid-19, promovida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los beneficiarios serán los Ayuntamientos, si bien el objetivo es financiar las inversiones en los sectores de comercio y hostelería dirigidos a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid-19.

Con este objetivo este Ayuntamiento ha recibido una subvención de 13.043 €.

Ahora procede con esta subvención financiar las inversiones que realicen los sectores de comercio y hostelería del municipio de Irura.

En el ejercicio de las competencias señaladas a los Ayuntamientos por la Ley 2/2016 de Instituciones Locales del País Vasco, en los párrafos 25) y 34) del art.17.1.

Así mismo en virtud de las competencias conferidas por la citada Ley a esta Alcaldía,

HA RESUELTO

1.º Aprobar la convocatoria y sus Bases para la concesión de ayudas económicas destinadas a la reactivación económica local en los sectores del comercio minorista y establecimientos de hostelería para hacer frente al Covid-19.

Dicha convocatoria se adjunta como anexo a la presente Resolución.

Dicha convocatoria se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Así mismo la convocatoria y demás documentos necesarios para la solicitud de la ayuda, se encuentran disponibles en la página web del Ayuntamiento de Irura ([www.irura.eus](http://www.irura.eus)), en el apartado de ayudas y subvenciones.

2.º Autorizar el gasto de 13.043 € en el presupuesto municipal de 2020 con arreglo a la siguiente imputación presupuestaria del Ayuntamiento de Irura:

1.1000.480.431.00.00.2020

Contra la presente Resolución podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria.

Irura, a 14 de septiembre 2020.—El alcalde, Gorka Murua Macuso. (4630)

ERANSKINA

*Irurako Udaleko Alkatetzaren ebazpena, 2020ko irailaren 14 eguneko, Irurako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan beharrezko inbertsioak egitea, ekipamenduak jartzea eta inbertsio horiek bideratzeko ikerketak egitea, jarduera ekonomikoak Covid-19 ari aurre egiteko helburuarekin dirulaguntzak emateko deialdia onartzen duena. Irurako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak: jarduera ekonomikoak Covid-19ari aurre egiteko prestatzera bideratutako inbertsioak.*

1. Xedea eta helburua.

Deialdi honen xedea da baldintzak arautzea, honako helburuak dauzkaten dirulaguntzak emateko: Irurako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan beharrezko inbertsioak egitea, ekipamenduak jartzea eta inbertsio horiek bideratzeko ikerketak egitea, jarduera ekonomikoak Covid-19ari aurre egiteko prestatzera aldera.

Dirulaguntzen xedea da tokiko jarduera sustatu nahiz sustertzea eta, bide batez, sektoreen jarduera ekonomikoak, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea, Covid-19 edo koronabirusaren krisiak eragindako ondorioei aurre egin ahal izateko.

2. Finantzaketa eta esleipen ekonomikoa.

Ekimen honetan jasotzen diren diru-laguntzetarako gehienez 13.043 € esleitu ditu udalak eta 01.0000.480.431.00 Inbertsioetarako Laguntzak Covid-19 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaizkio.

Deialdi honetarako finantziarioa (13.043 €) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Sailetik dator.

3. Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango dira inbertsioak eta ekipamenduak, baita inbertsioak gauzatzeko azterketak ere, jarduera ekonomikoak Covid-19 edo koronabirusari aurre egiteko prestatzera bideratuak badaude. Besteak beste, honako hauek izango dira:

– Lokalak eta laneko moduak egokitzea.

Segurtasun eta osasunaren irizpideak/protokoloak betetze aldera, merkataritza edo ostalaritza-lokalak moldatzeko inbertsioak eta ekipamendua.

Bezeroekin eta erakunde hornitzaileekin harreman berriak antolatze aldera, laneko moduak egokitzeko inbertsioak eta ekipamenduak.

Diruz lagundu ahal izateko, proiektuen onartutako gutxieneko inbertsio-zenbatekoa 150 € izango da establezimendu bakoitzeko eta zenbateko horretara iristen ez diren eskaerak ez dira diruz lagunduko. Diruz lagundu daitezkeen gehieneko gastua, berriz, 1.000 eurokoa izango da establezimendu bakoitzeko.

Diruz lagundutako jarduerak 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra artean egingo dira. Halaber, fakturen datak eta bere ordainketak epealdi horren barruan egongo dira.

Ez dira diruz lagunduko goian azaldu diren gastuak, onuradunak helburu berberarekin beste edozein dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera jaso badu eta, banaka edo guztira, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen bada.

BEZa eta bestelako zeharkako zergak diruz lagunduko dira, soilik ez badira berreskuragarriak edo orekatzea ezinezkoa suertatzen bada.

ANEXO

*Resolución de 14 de septiembre de 2020, de la Alcaldía del Ayuntamiento de Irura, por la que se aprueba la convocatoria para la concesión de subvenciones destinadas a inversiones, equipamientos y estudios necesarios para llevar a cabo esas inversiones, dirigidas a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid-19 en los sectores del comercio y hostelería del municipio de Irura. Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la reactivación económica de los sectores del comercio y hostelería de Irura: inversiones dirigidas a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid-19.*

1. Objeto y finalidad.

El objeto de esta convocatoria es regular las condiciones para la concesión de subvenciones destinadas a inversiones, equipamientos y estudios necesarios para llevar a cabo esas inversiones, dirigidas a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid-19 en los sectores del comercio y hostelería de Irura.

La finalidad de estas subvenciones es promover y reactivar la actividad local que permita mantener la actividad económica, el empleo y la dimensión competitiva de dichos sectores para que ambos puedan afrontar las consecuencias derivadas del impacto generado por la crisis producida por la Covid-19.

2. Financiación y consignación económica.

La cuantía presupuestaria destinada para las subvenciones de esta iniciativa tiene una consignación máxima de 13.043 € que se imputará a la aplicación presupuestaria 01.0000.480.431.00 Ayudas para inversiones Covid-19.

Esta convocatoria está financiada (13.043 €) por el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. Actuaciones subvencionables.

Se considerarán subvencionables las inversiones y equipamientos y los estudios necesarios para llevar a cabo esas inversiones dirigidas a preparar la actividad económica para hacer frente a la Covid 19 consistentes en:

– Adaptación de los locales y formas de trabajo.

Inversiones y equipamiento para la adecuación de los locales comerciales u hosteleros para el cumplimiento de los criterios/protocolos de seguridad y sanitarios.

Inversiones y equipamiento para la adecuación de las formas de trabajo para las nuevas relaciones con la clientela y las entidades proveedoras.

Para ser subvencionables, los proyectos deberán tener un importe mínimo de inversión admitida de 150 € por establecimiento y no serán objeto de subvención las peticiones que no alcancen ese importe. En cuanto al gasto máximo subvencionable será de 1.000 euros por establecimiento.

Las actuaciones subvencionables deberán realizarse entre el período del 14 de marzo y el 31 de diciembre del año 2020. La fecha de las facturas y el pago de las mismas también deberá estar comprendida en dicho período.

No serán subvencionables los gastos arriba detallados para el supuesto en el que el beneficiario hubiera recibido cualquier otra subvención, ayuda o ingreso para la misma finalidad, que de forma individual o en su conjunto, supere el coste de los gastos que se subvencionan.

El IVA y otros impuestos indirectos sólo serán subvencionables cuando no sean susceptibles de recuperación o compensación.

#### 4. Onuradunak.

Dirulaguntzaren onuradunak izan daitezke beren kontura lanean diharduten pertsonak edo autonomoak, baita enpresa txikiak ere, beren forma juridikoa edozein dela ere, 10 langile baino gutxiago badituzte eta txikizkako merkataritzaren nahiz ostalaritzaren sektoreetan badaude. Horrez gain, urteko negozio-zifra ez du 1 milioi euro gaindituko.

#### 5. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak.

Eskaera aurkeztean, onuradunek hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte:

Irurako Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergaren matrikulan, txikizkako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreei dagozkie epigrafe ekonomikoetan, alta emanak egongo dira.

Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak egunean dauzkatela egiaztatu behar dute, eta baita Irurako Udalarekiko betebeharrak ere.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusitako debekurik ez dute izango.

#### 6. Baztertzekak.

Laguntza hauetatik baztertuta geratzen dira jarraian zerrendatuta daudenak:

Euren kontura lan egiten duten langileak aldi berean deialdi honetan eskabidea aurkeztu duten nortasun juridikodun erakundeetako organoen (kapital sozietate, sozietate kooperatibo, sozietate zibila eta abarren) bazkideak edo kideak badira.

#### 7. Eskaerak eta dokumentazioa.

Eskaerak lehentasunez Udalaren Erregistro Elektronikokoan bidez egingo dira. Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoetan ere aurrez-aurre aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Eskaera orriak establezimenduaren titularrak edo legezko ordezkariak aurkeztu behar dute, Udalak web orrian argitaratuko duen eskabide-eredu ofizialean: [www.irura.eus](http://www.irura.eus).

Eskaerak honako datuak izango ditu:

Eskatzailearen identifikazio datuak eta hala badagokio, ordezkariarenak.

– Dirulaguntzaren xede diren jardueren memoria eta aurrekontua.

– Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak:

Irurako Udalarai baimena ematea Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak egiaztatzea.

Interesdunak datu pertsonalak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea erabiliz gero, nahitaez dagokion dokumentazioa erantsi behar du eta aurkezten ez badu, eskaera ezetsizat jo daiteke.

– Erantzukizunpeko adierazpena, oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen direla eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta 13. artikuluan aurreikusitako onuradun izateko debekuen eraginpean ez daudela bermatuko duena.

Eskabidearekin batera, honako nahitaezko agiri hauek aurkeztu behar dira:

Eskaera ordezkari legalak egin badu, ordezkari baimena aurkeztu behar du (ahalordeak pertsona juridikoen, sozietate zibilen, ondasun komunitateen edo nortasun juridiko propioak ez duten bestelako entitateen kasuan).

– Errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua, adierazten dituen jarduera ekonomikoa, alta data, helbide fiskala eta, hala badagokio, jarduera garatzeko lokala.

#### 4. Personas beneficiarias.

Podrán ser personas beneficiarias de esta subvención las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y micro empresas, cualquiera que sea su forma jurídica, que ocupen a menos de 10 trabajadores de los sectores comercio minorista y hostelería y cuya cifra de negocios no supere 1 millón de euros.

#### 5. Requisitos que han de reunir las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias, en el momento de presentación de la solicitud, deberán reunir los siguientes requisitos:

Que figuren dados de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas de Irura en los epígrafes económicos de los sectores de comercio minorista y hostelería.

Que se hallen al corriente en el pago de sus obligaciones con la Hacienda Foral, con la Tesorería General de la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Irura.

Que no estén incurso en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 13 apartados 2 y 3 de la Ley General de Subvenciones.

#### 6. Exclusiones.

Quedan excluidas de las presentes ayudas quienes a se encuentren en las situaciones que se detallan a continuación:

Personas trabajadoras por cuenta propia que a su vez sean socias o miembros de órganos de entidades con personalidad jurídica (sociedades de capital, sociedades cooperativas, sociedades civiles, etc.) que hayan presentado o vayan a presentar solicitud en esta convocatoria.

#### 7. Solicitudes y documentación.

Las solicitudes se realizarán prioritariamente en el Registro Electrónico del Ayuntamiento. También podrán presentarse en el Registro de Entrada del Ayuntamiento.

Las solicitudes deberán ser presentadas por el titular del establecimiento o el o la representante legal, en el modelo de solicitud oficial que se publicará en la página web del Ayuntamiento: [www.irura.eus](http://www.irura.eus).

La solicitud contendrá los siguientes datos:

Datos identificativos del solicitante y de la persona representante su caso.

– Memoria y presupuesto de las actuaciones objeto de subvención.

– Declaración responsable en la que el solicitante:

Autoriza al Ayuntamiento de Irura para consultar los certificados de estar al corriente de las obligaciones con la Hacienda Foral y la Tesorería General de la Seguridad Social.

En el caso de que el interesado ejercite su derecho de oposición a la consulta de sus datos personales, estará obligado a adjuntar la documentación correspondiente, pudiendo ser declarado desistido de su solicitud si no la aporta.

– Declaración responsable que garantice que se da cumplimiento a los requisitos recogidos en las presentes bases y no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

A dicha solicitud se adjuntará la documentación obligatoria que figura a continuación:

En caso de que la solicitud la realice un representante deberá presentar autorización de representación (poderes en el caso de personas jurídicas, sociedades civiles, comunidades de bienes u otras entidades sin personalidad jurídica propia).

– Certificado actualizado de la situación censal que indique la actividad económica con su fecha de alta, domicilio fiscal y en su caso local de desarrollo de la actividad.

Establezimendu bakoitzeko laguntza-eskaera bakarria aurkeztu ahal izango da.

Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran ebazpena eman ondoren.

#### 8. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean eta 2020ko urriaren 16an amaituko da.

#### 9. Dirulaguntza emateko prozedura.

Laguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia prozedura erabiliz emango dira eta zenbateko guztia dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 22.1 artikuluan xedatutakoaren babesean.

Emandako laguntza guztiak behin bakarrik esleituko dira, egintza bakar batean, lehiaketa-teknika erabili gabe, eskabideak garaiz eta behar bezala aurkeztu dituzten eta oinarri hauek onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei laguntzak ematea helburu duen programa delako.

Establezimenduko dirulaguntza bakarria emango da.

Emateari buruzko behin betiko ebazpena Irurako Udalaren webgunean argitaratuta jakinaraziko da.

#### 10. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako jarduketaren aurrekontuaren % 100 artekoa izango da, eta diruz lagun daitekeen gastua, gehienez, 1.000 eurokoa izango da establezimendu bakoitzeko. Horretarako, haren finantzaketari lotutako aurrekontu-baliabideak ez badira nahikoak egindako eskaerei ezarritako zenbateko eta ehunekoetan erantzuteko, horien artean hainbanatuko dira, oinarri gisa aurkeztutako aurrekontuaren arabera kalkulaturako diru-laguntza teorikoaren zenbatekoa hartuta, oinarri honetan ezarritako muga kontuan hartuta.

Bestela, eskatutako diru-laguntzak kreditu-mugatik behera-koak badira, aipatutako 1.000 euroko muga gainditu ahal izango da.

#### 11. Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntza kontura ordainduko da, emateari buruzko behin betiko ebazpenaren ostean, bertan xedatutako epean, justifikazio-dokumentazioa aurkeztu baino lehen.

Justifikazio-dokumentazioa entregatutakoan eta Kontu-hartzaileak aztertutakoan, deialdi honetan xedatutako laguntzak jasotzeko baldintzak ala eskakizunak edo eskaeran alegatutako alderdiak zati batean edo erabat betetzen ez direla antzematen bada, oker jasotako zenbatekoa zati batean edo oso-osorik itzultzeko espedientea hasiko da.

#### 12. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak ondorengo betebeharrak hauek ditu:

Organo edo erakunde emailearen aurrean justifikatuko du eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela, edo prozeduraren organo izapidegileari egiaztatzeko baimena emango dio.

Organo emaileari jakinaraziko dizkio bestelako laguntzak, dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira.

Sólo se podrá presentar una solicitud de ayuda por establecimiento.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá al solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

#### 8. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes se abrirá el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el 16 de octubre de 2020.

#### 9. Procedimiento de concesión de la subvención.

Estas ayudas se conceden mediante el procedimiento de concurrencia no competitiva, con prorrateo entre los beneficiarios de la subvención, del importe global, en virtud del art. 22.1 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

La adjudicación de todas las ayudas concedidas se realizará de una sola vez, en un mismo acto, sin utilizar la técnica concursal, por tratarse de un programa cuya finalidad es otorgar ayudas a todas aquellas entidades que, habiendo formulado sus solicitudes en tiempo y forma, cumplan los requisitos exigidos en las presentes bases para resultar beneficiarias.

Se concederá una única subvención por establecimiento.

La notificación de la resolución definitiva de concesión se realizará mediante su publicación en la página web del Ayuntamiento de Irura.

#### 10. Cuantía de la subvención.

La cuantía de la subvención podrá ser hasta del 100 % del presupuesto de la actuación presentada con un gasto subvencionable máximo de 1.000 euros por establecimiento. Si las disponibilidades presupuestarias vinculadas a la financiación del mismo resultaran insuficientes para atender las peticiones formuladas en las cuantías y porcentaje mencionado, se procederá a su prorrateo entre las mismas tomando como base para su cálculo el importe de la subvención teórica calculada en función del presupuesto presentado, con el límite señalado en esta base.

En caso contrario, las subvenciones solicitadas que sean inferiores al límite de crédito, podrá superarse el límite citado de 1.000 €.

#### 11. Abono de la subvención.

El abono de la subvención se realizará a cuenta, tras la resolución definitiva de la concesión y en el plazo en el que se establezca en la misma, con carácter previo a la presentación de la documentación justificativa.

Una vez entregada la documentación justificativa y analizada la misma por la Intervención, si se detectara el incumplimiento parcial o total de los requisitos o condiciones para percibir las ayudas establecidas en esta convocatoria o de alguno de los extremos alegados en la solicitud, se incoará el correspondiente expediente de reintegro parcial o total de la cantidad indebidamente percibida.

#### 12. Obligaciones de los beneficiarios.

Son obligaciones de los beneficiarios:

Justificar ante el órgano o entidad concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidos o autorizar su comprobación al órgano instructor del procedimiento.

Comunicar al órgano concedente la obtención de otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

Jakinarazpena ezagutu bezain laster egin beharko da.

Organo emaileari jakinaraziko dio egoeratan edo onuradunak onartutako konpromiso eta betebeharretan edozein aldaketa, dirulaguntza emateko kontuan hartu bada.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak izango ditu eta Irurako Udalean epez kanpoko zorrik, zor likidorik eta zor galdagarririk ez da azalduko.

Organo emaileak egin ditzakeen egiaztapen-jardueratan parte hartuko du eta bere jarrera berdina izango da kontrol organo eskudunek, bai naziokoek, bai erkidegokoek, egin ditzaketen beste egiaztapen eta kontrol finantzario batzuekin. Hala, eskatzen zaion informazio guztia helaraziko du.

Arau hauek eta DLOk aurrez ikusitako ustezkoetan, jasotzen dituen funtsak itzuli beharko ditu.

Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzeko agiriak, agiri elektronikoa barne, gordeko ditu, egiaztapen eta kontrol-jarduerapean badaude.

Orokorrean, DLOk 14. artikuluan xedatutako beste edozein betebeharrak.

### 13. Jasotako dirulaguntzak justifikatzea.

Hirugarren oinarrian jasotako jarduketan gastuak, diru laguntza jaso dezaketanak, 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen justifikatu beharko dira.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztean, honako dokumentazio hau erantsi beharko da:

Diruz lagun daitezkeen gastuak fakturak eta merkataritzaren trafikoan baliozkoak diren gainerako agiriak aurkeztu ostean justifikatuko dira. Nolanahi ere, horiek behar bezala ordainduko dira. Beraz, faktura guztiei banku-ordainagiri egokia gehituko zaie.

### 14. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.

Hemen arautzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko ala erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko.

Erakunde onuradunak arau honetan erregulatutako xede berdinerako dirulaguntza lortu eta/edo eskatzen badu, modu frogagarrian jakinaraziko dio Udalari.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolanahi ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

### 15. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.

Irurako Udalak egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskarpen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu, ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.

Dirulaguntza ematea balio gabetuko da eta jasotako zenbatekoak zati batean edo oso-osorik itzuliko dira, DLOk 36. eta 37. artikuluetan eta gainerako araudi orokor aplikagarriek xedatutako kasuetan, baita arau hauetan ezarritako eginkizunak betetzen ez diren kasuetan ere.

Esta comunicación deberá efectuarse de manera inmediata a su conocimiento.

Comunicar al órgano concedente cualquier modificación que se produzca respecto a las circunstancias tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, así como respecto a los compromisos y obligaciones asumidas por el beneficiario.

Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y no ser deudor al Ayuntamiento de Irura por deudas vencidas, líquidas y exigibles.

Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida.

Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en estas normas y en la LGS.

Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

En general, cualquiera otra de las recogidas en el artículo 14 de la LGS.

### 13. Justificación de las subvenciones recibidas.

Los gastos subvencionables de las actuaciones comprendidas en la base tercera deberán justificar las subvenciones recibidas con anterioridad al 31 de enero de 2021.

A la presentación de la justificación de la subvención deberá aportarse la siguiente documentación:

Los gastos subvencionables se justificarán mediante la aportación de facturas y demás documentos válidos en el tráfico mercantil que deberán estar debidamente abonados. Por tanto, todas las facturas deberán aportar su correspondiente justificante bancario de pago.

### 14. Concurrencia y compatibilidad de ayudas.

Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, siempre que en su conjunto, no superen el coste de los gastos que se subvencionan.

El importe de las subvenciones que se regulan en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad subvencionada.

La entidad beneficiaria que obtuviera y/o solicitara una subvención para la misma finalidad que la regulada en esta norma deberá comunicarlo de modo fehaciente al Ayuntamiento.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la ayuda y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

### 15. Inspección e incumplimientos.

El Ayuntamiento de Irura se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de ayudas.

Procederá la revocación de la concesión y el reintegro, total o parcial, de las cantidades percibidas, en los casos establecidos en los artículos 36 y 37 de la LGS y demás normativa general que resulte de aplicación, así como en el caso de incumplimiento de las obligaciones recogidas en las presentes normas.